



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 26a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00006. “Tafallako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00006. “Tafallako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Tafallako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea Tafallako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA**ORRIALDEA**

I. SARRERA	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	4
III. SALBUESPENDUN IRITZIA.....	5
IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	6
VI. BESTELAKOAK.....	6
VII. TAFALLAKO UDALAREN ETA "CLUB DEPORTIVO TAFALLA SA" SOZIETATEAREN ERANTZUKIZUNA	6
VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	7
1. GEHIGARRIA. TAFALLAKO UDALA	8
1.1 Informazio orokorra	8
1.2 Egindako jarduerak	9
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	10
3. GEHIGARRIA. BETETZE-FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA GEHIGARRI BATZUK	11
3.1 Udaleko langileak.....	11
3.2 Udalaren kontratazio publikoa.....	13
3.3 Udalaren transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak	16
3.4 "Next Generation EU" funtsak	19
3.5 Club Deportivo Tafalla SA sozietatearen kontratazio publikoa.....	19

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan Tafallako Udalari 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tafallako Udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Jarduketa honen emaitzak Tafallako Udaleko alkateari eta alkate ohiari jakinarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaizten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Tafallako Udalak eta haren mendeko sozietateak 2022ko ekitaldian egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

Udalari dagokionez, gai hauek aztertu dira:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominetako ordainsarien analisia eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bitartezko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak.
- Udal taldeentzako diru-ekarpenak.

Era berean, Udalak emandako datuen arabera, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

“Ciudad Deportiva de Tafalla SA” udal sozietatean (aurrerantzean CDTSA), gure fiskalizazioak kontratazio publikoaren esparrua soilik hartzen du; izan ere, 2022ko kontuen arabera –horiek ez dira auditatu–, sozietateak ez du langilerik izan, ez du dirulaguntzarik eman, ez eta ‘Next Generation EU’ funtsik jaso ere, ez ekitaldi horretan ez aurrekoan. Zehazki, honako hauek fiskalizatu ditugu:

- Munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidezko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak.
- Diru-sarrerak ekartzen dituzten kontratuen esleipenak.

Fiskalizazioaren norainokoak hartzen ditu txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Lanaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldia izan da; baina, kasuan-kasuan, beste ekitaldi batzuei buruz beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. SALBUESPENDUN IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du langileria, kontratazio administratibo eta dirulaguntzen arloan Tafallako Udalak 2022ko ekitaldian egindakoari buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Tafallako Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertuak – bai eta haren mendeko sozietate publikoaren ekitaldi bereko kontratazio-jarduera ere– bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

a) Udalaren kontratazio publikoari dagokionez, ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuetako 1,33 milioi eurori –hau da, halako gastuen guztizko bolumenaren ehuneko 40ri– eragiten dieten akatsak aurkitu ditugu. Zehazki, txosten honen 3.2 gehigarrian zehazten den moduan, udalak:

- 987.597 euroko gastua egin zuen 15 kontratistarekin hainbat prestazioengatik, kontratuen balio zenbatetsia kontuan hartuta legez eskatzen diren lizitazio-prozedurak bete gabe. Zenbatekoaren ehuneko 78 elektrizitate- eta gas-hornidurei dagokie.

- 338.720 euro ordaindu zituen, guztira, kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioetan, kontratu amaituak zeuzkaten bost prestazioengatik. Zenbatekoaren ehuneko 71 da 2012tik mugaeguneratuta dauden bi garbiketako kontraturena.

b) CDTSA sozietate publikoan, 35.452 eurori –kontratazioaren xede izan diren sozietatearen gastu eta erosketen ehuneko 29ri– eragiten dieten kontratazio publikoaren arloko akatsak identifikatu ditugu. Zehazki, sozietateak:

- Instalazioak ikuskatzeko zerbitzu bat kontratatu zuen 27.905 euroan, eta zenbateko hori faktura bakarrean sartu zen, inolako lizitazio-prozedurarik izapidetu gabe. Ekitaldian zenbatekoarengatik nahitaez lizitatu beharrekoa zen gastu esleitu bakarra da.

- 7.547 euro ordaindu zituen aholkularitza eta zerbitzu profesionalak jasotzeagatik, kontratu-euskarri egokirik gabe, kontratuaren indarraldia bukatuta baitzegoen. Kontratua bukatu zenetik – 2009an mugaeguneratu zen– prestazio horiengatik metatutako gastua 86.956 eurokoa da.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia salbuespenekin adierazteko.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarriak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko legezkotasun-betetzeari egin diogun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako "Salbuespandun iritziaren oinarria" atalean azaldutako alderdiengatik izan ezik, erabaki dugu ez dugula gure fiskalizazioan giltzarritzat jotako inolako gorabeheraren berririk eman behar.

VI. BESTELAKOAK

CDTSA udal sozietate publikoak ez du langilerik, gauzatzen duen jarduera da bere instalazioen emakida egitea haiek kontzesio administratiboaren araubidean kudeatuak izateko, eta administrazio-gastuak sortzen ditu, txosten honen 3.5 gehigarrian zehazten denez; hori dela eta, sozietate horren beharra zalantzan jar daiteke.

VII. TAFALLAKO UDALAREN ETA "CLUB DEPORTIVO TAFALLA SA" SOZIETATEAREN ERANTZUKIZUNA

Tafallako Udalaren zuzendaritza- eta gobernu-organoei bermatu behar dute udalak gauzaturiko jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin. Era berean, haien erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezartzea, egindako jarduerak ez duela lege ez-betetzetik izanen bermatzekoak.

Bestalde, CDTSA sozietatean, udalaren kontu-hartzailetzari lege dagozkion kontrol-eginkizunak galarazi gabe, administrazio-kontseiluak bermatu behar du sozietateak gauzaturiko jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin. Modu berean, haren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, egindako jarduerak ez duela lege ez-betetzetik izanen bermatzekoak.

VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea udalak eta haren mendeko sozietateak 2022ko ekitaldian fiskalizatutako gaietan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta betetzearen fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

"Arrazoizko ziurtasuna lortzea" esatean ziurtasun maila handia lortzea esan nahi dugu, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik ez-betetze aipagarri bat, halakorik dagoenean. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo kontrolako organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten parte gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo errore ondozko ez-betetze aipagarriak izateko arriskuak identifikatu eta baloratu ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritziari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko ez-betetze aipagarri bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltutzea, berriazko omisioak, berriazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Barne-kontrola dela-eta fiskalizatorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu xedetzat hariturik inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutzea, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik ematea.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak ote diren, bai eta kudeaketa-organoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak, eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan diren gaiak.

IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileriari, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek gomendatzen du:

- *Lizita daitezela munta txikiko kontratuen araubide bereziaren aplikagarritasunaren mugez haraindiko balio zenbatetsia duten kontratu guztiak, bai Udalean bai haren mendeko sozietatean, kasuko espedienteak araudiaren arabera betez.*

- *Kontratazio publikoko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

- *CDTSA sozietatea desegiteko aukera aztertzea eta hura alde den kontzesio-kontratueta subrogatzea Udala, COVID-19aren ondorioz kontratuak berrerekatzeari buruzko eztabaida oro ebatzi ondoren.*

- *Erregelamendu bidez garatzea udal taldeen finantzaketaren justifikazio-araubidea, zehaztuz bai haien zuzkidura ekonomikoen xedea, bai formazko eta prozedurazko gainerako betekizunak, bai eta justifikazio-kontua Osoko Bilkurari jakinaraztea ere, gutxienez urtean behin, kontu-hartzailetzak hura fiskalizatu ondoren.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 31n

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. TAFALLAKO UDALA

1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Tafalla Nafarroako Erdialdeko udalerrri bat da. 98,3 km²-ko azalera du, eta 10.576 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal antolamendua besteak beste honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura (17 kide), Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza. Gainera, zortzi batzorde informatibo daude.

Tafallako Udalak ez du erakunde autonomorik.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko, CDTSA merkataritza-sozietatea eratu zuen, zeinaren xede soziala baita Tafallako Kirol Hiriaren eraikuntza-lanak eta ekipamendua, eta behar diren jarduketa guztiak egitea haren instalazioak ahal den hobekien erabili eta ustiatzeko. 13,92 milioiko kapital soziala du, eta oso-osorik da toki-entitatearena.

Udalak ez dauka haren mendeko fundazio publikorik.

2022ko ekitaldia ixtean, haien guztien ekonomia- eta langileria-datu nagusiak, haiek igorritako kontuen araberakoak –ikuskatu gabe daude–, honako hauek ziren:

- Administrazioaren sektore publikoa:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako bete-beharrak	Langileak, 2022-12-31n
Udala	12.870.577	12.193.044	157 ¹

(1) 2022ko kontu bateratuen txostenaren arabera

- Enpresen sektore publikoa:

Sozietate publikoa	Negozio-kopuru garbia	Ekitaldiko emaitzak	Udalaren dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Batez besteko plantilla 2022
Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.	8038	(269.332)	459.473 ¹	1400	14.754.835	0

(1) Kapitaleko dirulaguntzak ekitaldiko emaitzetara egoteari dagozkion 239.473 euro barne.

2022an, Udalak 260.000 euroko ekarpena egin zion CDTSAri; hots, transferentzia arruntei dagozkien 220.000 euro eta kapital-transferentziei dagozkien 40.000 euro. Transferentzia arruntetik, 200.000 euroren xedea zen kirol-instalazioen kudeaketaren kontzesio-hartzaile den sozietate pribatuari ordaintzea, txosten honen III.6. gehigarrian zehazten den moduan.

Bestalde, Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

- Mairagako Mankomunitatea, zeinak ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri hondakin solidoen bilketa, kudeaketa eta tratamendukoak.
- Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoa, zeinaren xedea baita eremu horren garapen integrala sustatzea, eragile ekonomiko eta sozialekin parte-hartzearekin.

2022an, udalak entitate horiei eginiko transferentziengatikoko gastu aitortuek 81.285 euro egiten dute. Hona hemen xehetasunak:

	Udalaren transferentziak 2022an
Mairagako Mankomunitatea	-
Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea	23676
Nafarroako Erdialdearen Garapenerako Partzuergoa	57609
Guztira	81.285

1.2 EGINDAKO JARDUERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudea- keta	Zeharkako kudea- keta	Mankomunitatea
	Udala	Zerbitzu-emakidak	
Herritarrentzako arreta	x		
Argiteria publikoa	x		
Hilerria	x		
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea			x
Bide-garbiketa	x		
Uraren ziklo integrala			x
Euri-uren estolderia	x		
Parkeak eta lorategiak	x		
Gizarte-etxea / Erretirodunen etxea	x		
Gazteriaren Etxean / Ludoteka	x		
Gizarte zerbitzuak	X ¹		
Kirol instalazioak	x	X ²	
Kirol egitearen sustapena	x		x
Hirigintza	x		
Udaltzaingoa	x		
Landazaintza	x		
Ingurumena	x		
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	x		
Musika Eskola	x		
Euskara sustatzea	x		
Jaiak eta azokak	x		
Ikastetxe publikoak mantentzea	x		
Merkatua	x		
Berdintasunaren sustapena	x		
Merkataritzaren eta turismoaren sustapena	x		
Merkataritza ibiltaria	x		
Haur eskola	x		

(1) Beste udal batzuekin hitzartuta (Tafallako Eskualdeko Gizarte-zerbitzuen Udalarreko Elkarteak).

(2) Tafallako Kirol Hiriaren instalazioak, CDTSA sozietateari atxikiak eta zerbitzu-emakidako araubidean kudeatuak.

2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Foru araudia eta tokikoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.

3. GEHIGARRIA. BETETZE-FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA GEHIGARRI BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren eta haren mendeko sozietatearen kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

3.1 UDALEKO LANGILEAK

Langile-gastuak 6,79 milioikoak izan ziren, eta ekitaldian sortutako gastu guztien % 56 egin zuten. Honako taulan ematen da gastu horren xehakapena:

Kontzeptua	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	80.915
Behin-behineko langileak	127.330
Funtzionarioak	1.625.923
Lan kontratudun finkoak	530.244
Aldi baterako lan-kontratudunak	2.098.841
Enplegua ematen duenaren kontuko kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	2.239.548
Langileen gizarte gastuak	85.023
Guztira	6.787.825

Plantilla organikoa

Udalaren 2022rako plantilla organikoaren behin betiko onespena 2022ko irailaren 26ko 191. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO) argitaratu zen. Bestalde, 2022ko abenduaren 31ko langileria-zerrenda onetsi egin zen, eta 2023ko maiatzaren 4ko 94. NAO on argitaratu zen.

Honako hauek dira lanpostuak, plantilla organikoaren arabera:

Sailkapena	2022
Langile funtzionarioak	58
Lan-kontratudun langileak	61
Behin-behineko langileak	2
Guztira	121

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 50 lan-araubidekoak dira, eta ehuneko 48, funtzionario-araubidekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako lanpostuak	121
Beteta	53
Hutsik	68
Lanpostu hutsen % lanpostu guztien gainean	56
Bete diren lanpostu hutsak	58
Bete diren lanpostu hutsak (%)	85
Bete gabeko lanpostu hutsak	10
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	15

2022aren amaieran, plantillako lanpostuen ehuneko 56 hutsik zeuden; horietatik ehuneko 85 behin-behinekoz beteta zeuden eta gainerako ehuneko 15 bete gabe zeuden. Behin-behinekotasunaren indizea, behin-behinekoz betetako lanpostuen eta modu finkoan nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa kalkulatuta, ehuneko 52koa zen.

Enplegu publikoaren egonkortze prozesuaren azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailearen 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Tafallako Udala, 2022ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, partzialki atxiki zen foru lege honen II. tituluaren aplikaziora.

Gure azterketatik, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Udalak 62 plazaren egonkortzerako lan-eskaintza publikoa onetsi zuen (aurrerantzean, LEP), eta 2022ko maiatzaren 24an argitaratu zen NAO, legez horretarako aurreikusitako epearen barruan.
- LEP horretan sartutako lanpostuetatik 61 merezimendu-lehiaketa bidez beteko dira, eta bat oposizio-lehiaketa bidez.
- Lanpostu horietatik 12, ez ziren agertzen 2022ko plantilla organikoan, baina egiturazko funtzioei dagozkiela jotzen da; hain zuzen, kirol-jardueretako begirale izateko hamar postu eta ludotekario izateko bi postu. Lanpostu horiek 2023ko plantilla organikoan sartu dira.
- LEPean sartutako lanpostuen lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugu bete egiten dituztela araudian horretarako ezarritako baldintzak.
- Lanpostu horiek betetzeko, bi deialdi onetsi ziren: bata, merezimendu-lehiaketarakoa, eta bestea, oposizio-lehiaketarakoa. Biak 2022ko abenduaren 19an argitaratu ziren NAO, horretarako aurreikusitako epearen barruan, urte horretako abenduaren 31n amaitzen baitzen.
- Prozesu horretan zehar, hiru administrazio-errekurtso aurkeztu dira: gora jotzeko bi errekurtso Nafarroako Administrazio Auzitegian (bat, LEPari buruzkoa, eta beste bat, merezimendu-lehiaketaren deialdiari buruzkoa), zeinak ezetsiak izan baitziren, eta berraztertzeko errekurtso bat, merezimendu-lehiaketaren deialdiari buruzkoa, zeina ez baitzen onartu. Bestalde, gaur egun errekurtso bat izapidetzen ari da lan-arloko jurisdikzioan. Errekurtso horretan, langile batek eskatzen du lan-kontratu mugagabedun langile izatea aitor dakiola. Horren ondorioz, gerta liteke merezimendu-lehiaketaren bidez bete beharreko lanpostuetako bat deialditik kanpo uztea.
- 2023ko martxoan argitaratu ziren NAO bi deialdietan onartutakoen behin-behineko zerrendak. 2024ko urtarrilean argitaratu da egonkortze prozesuan sartutako lanpostu hutsetarako lekualdaketa-lehiaketaren deialdia.

Nolanahi ere, egonkortze-prozesua ez da amaitu. Hautapen-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar dira, data horretarako bete behar baita legez aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak egiturazko lanpostuen ehuneko 8ra murriztea. Beraz, txosten hau egin den egunean, ezinezkoa da helburu hori bete den baloratzea.

Langileria-gastuen egiaztapenak

2022ko urrian sortutako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu, guztira 103 pertsonari dagokiena, 213.436 euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori hilabete horretako nominaren guztizkoaren ehuneko 67 da. Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	120.630
Gradua	16.251
Antzintasuna	24.353
Lanpostuko osagarria	29.408
Mailako osagarria	7.922
Berariazko osagarria	8.234
Bateriaezintasuneko osagarria	2.316
Arrisku bereziko osagarria	1.775
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	141
Zuzendaritza postuko osagarria	1.139
Arduraldi eskusiboko osagarria	1.109
Txandakako lanaldiaren osagarria	158
Guztira	213.436

Egiaztatu dugu nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztiak bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuetarako aurreikusitakoekin.

Gure azterketan egiaztatu dugu zerbitzu ekonomikoetako alorreko zuzendaritza-eginkizunak kontu-hartzaile lanpostuan diharduen pertsonari esleituta daudela. Esleipen hori alkatetzaren ebazpen bidez egin zen, plantilla organikoan aurreikusitakoaren arabera.

Gomendatzen dugu kudeaketa- eta zuzendaritza-eginkizunak eta barne-kontrollekoak bereiztea, pertsona desberdinei esleituz.

3.2 UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 3,34 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 27 egiten dute, xehetasun hauekin bat:

Artikulu ekonomikoa	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Errentamenduak eta kanonak	8.781
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	844.114
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	2.452.281
Zerbitzuaren ondoriozko gastuen kalte-ordainak	10.767
Argitalpen-gastuak	21.938
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak, guztira (2. kapitulua)	3.337.881

Bestalde, 2022ko inbertsio-gastuek 794.840 euro egin zuten. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko zazpi egiten du, jarraian azaltzen den moduan banatua:

Artikulu ekonomikoa	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	72.704
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	352.900
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako lehengoratzeko inbertsioa	208.210
Ezin ukituzko inbertsioetan egindako gastua	83.625
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	62.546
Lurrak eta ondasun naturalak	14.854
Inbertsio errealetan egindako gastua guztira (6. kapitulua)	794.840

Gure lana izan da munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidezko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertzea.

Lagina hautatzeko, kontratisten zerrenda eta bakoitzari dagokion gastuaren zenbatekoa lortu ditugu, bi gastu-kapituluetako bakoitzerako. Hurrengo taulan, gastu-aurrekontuko 2. eta 6. kapitulu-uetako gastuen xehakapena erakusten da, lizitazio-prozeduraren bidez ala munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez esleitu diren kontuan hartuta.

Kapitulua	Kontratista-kop.		Gastua (BEZa barne)	
	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko kontratueterako araubide berezia	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko kontratueterako araubide berezia
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	4	676 ¹	511.526	2.826.355
6. Inbertsio errealak	6	34 ²	500.957	293.883

(1) Horietatik, 579k ekitaldian 3.750 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastua dute.

(2) Horietatik, 31k ekitaldian 15.000 euro (BEZa barne) baino gutxiagoko gastua dute.

Munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez kontratatu diren kontratista guztietatik, honako lagin hau hautatu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.	2022ko gastua (BEZa barne)
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	35	1.843.602
6. Inbertsioetako gastuak	5	167.810

Hautatutako laginek 2. eta 6. kapitulu-uetan munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez izapidetutako gastuaren ehuneko 65 eta 57 egiten dute, hurrenez hurren.

Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Egiaztatu dugu badirela munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez esleitutako kontratuak, horien balio zenbatetsiak araubide berezi horren erabilerarako ezarritako mugak gainditzen baditu ere. 2022an, prestazio horiengatik ordaindutako zenbatekoa 987.597 eurokoa da. Hona hemen xehetasunak:

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kopuruak	2022ko gastua (BEZa barne)
Elektrizitate-hornidura (lau kontratista)	383	648.413
Gas-hornidura	118	118.915
Argiteria publikoaren mantentzea	79	62.398
Kulturgunea garbitzea	19	31.036
Telefonia-zerbitzua (bi kontratista)	55	27.324
Liburutegia garbitzea	12	27.101
Kulturguneko aretorako laguntza teknikoa	21	23.271
Zinema-proiektzioa	12	14.520
Poliziaren jantziak	8	14.027
Udal-artxiboaren dokumentu-kudeaketa	1	9.999
Kulturguneko instalazio termikoen prebentziozko mantentze-lanak	12	5.469
Bideo-akten zerbitzua	11	5.124
Guztira	731	987.597

(1) Taulan adierazitako kasuetan izan ezik, zerbitzu bakoitza kontratista bakar batek ematen du. Kulturgunea eta liburutegia garbitzeko kontratuak enpresa berari esleituta daude.

Elektrizitatearen eta gasaren hornidura-kontratuaren esleipenari dagokionez, positiboki baloratu behar da udalak prezio-alderaketa egin izana kanpoko enpresa baten bitartez. Hala ere, ez zuen araudiaren arabera zegokion lizitazio-prozedura izapidetu.

- 6. kapitulua. Inbertsioak

Kapitulu honetan egiaztatu dugunez, aztertutako gastuak ez zuen munta txikiko kontratueterako araubide bereziaz bestelako esleipen-prozedurarik behar; beraz, egokiro izapidetu zen.

- Kontratazioak argitaratzea

Udalak urtero argitaratzen ditu munta txikiko kontratueterako araubidearen bidez eginiko esleipenak; baina, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak ezartzen duenez, hiru hilean behin egin behar dira.

Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak emandako informazioaren arabera, 2022an guztira 338.720 euro ordaindu ziren, kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioengatik, kasuko kontratuak mugaeguneratuta baitzeuden. Hona xehetasunak:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindutako gastua	Gastu metatua kontratua amaitu zenetik 2022/12/31ra arte	Kontratu-amaieraren data (luzapenak barne)
Zenbait udal eraikinen garbiketa	171.054	1.597.363	2012/09/30
Ikastetxe publikoaren garbiketa	70.901	647.201	2012/12/31
Erantzukizun zibileko aseguruua	37.234	55.718	2020/09/29
Eraikinen aseguruua	50.136	69.466	2021/03/31
Webguneko edukien kudeaketa	9.395	23.488	2020/06/30
Guztira	338.720	2.393.236	

(1) Ez dira sartzen ikastetxe publikoa, kulturgunea eta liburutegia garbitzeko zerbitzuak.

Erantzukizun zibileko aseguruak eta eraikinen aseguruak 2023an esleitu dira; gainerako zerbitzuak, berriz, oraindik ere kontratu-euskarri egokirik gabe ematen dira. Garbiketa-zerbitzuen kasuan, egoera horrek 2012. urtetik aurrera irauten duela nabarmendu behar dugu.

Munta txikiko kontratazioetan eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioetan antzeman ditugun akats nagusiak jada aipatuak izan ziren udal kontu-hartzaitzak 2021ean eta 2022an alkatetzari helarazitako txostenetan.

Txosten horietan adierazten da, halaber, aparkaleku arautuaren emakida-kontratua mugaeguneratuta dagoela, haren amaiera data (luzapenak barne) 2013ko abenduaren 31 izan baitzen. 2022an, Udalak 14.927 euroko diru-sarrerak aitortu zituen kontratu horrengatik.

Gure fiskalizazioaren ondorioz, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako gomendioez gain, *gomendatzen dugu Nafarroako Kontratazioaren Atarian hiru hilean behingo maiztasunez argitaratzea udalak munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez egindako esleipenak.*

3.3 UDALAREN TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

2022an, transferentzia-gastuak 717.700 euro izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko sei egiten du, honako xehetasun hauekin bat:

	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Toki-erakundearen merkataritza-sozietateak	220.000	40.000
Mankomunitateak	23.676	-
Partzuergoak	11.783	-
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	402.242 ¹	20.000
Guztira	657.700	60.000

(1) Nafarroako Erdialdeko Garapen Partzuergoari eginiko 57.609 euroko transferentziak barne.

Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa eta zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak aztertu ditugu, baita udal-taldeentzako ekarpen ekonomikoak ere.

Dirulaguntzen plan estrategikoa

Udalak badu Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat 2022-2023 aldirako, Udalbatzak 2022ko ekainaren 28an onetsia.

Plan horren edukia aztertu dugu eta uste dugu arrazoizkoa dela eta araudian ezarritakora egokitzen dela alderdi esanguratsuetan.

Dirulaguntzen lagin baten azterketa

Udalak emandako informazioaren arabera, 179.659 euroko dirulaguntzak eman zizkien zuzeneko emakidaren araubidearen bitartez 25 onuraduni,¹ jarraian zehazten den moduan:

Onuraduna	Aitortutako betebeharrak
"La Tafallesa" musika banda	55.000
Espainiako Gurutze Gorria	23.200
Peña Sport futbol taldea	20.000
Udalbiltza Partzuergoa	11.783
Berdesia elkarte	8.005
SRCD "El Empuje" elkarte	7.000
Peña "El Aguazón" elkarte	7.000
SRDC "El Cierzo" elkarte	7.000
Tafallako parrokiarteko Cáritas	6.000
Romerales Guraso Elkarte	6.000
Club deportivo Tafa (aretoko futbola)	6.000
Zidakos Gazte Taldea	4.000
ANFAS	3.000
San Sebastián erretiratu eta pentsiodunen elkarte	3.000
Merindad Kultur Elkarte	2.500
Olentzero Batzordea	2.000
Garcés de los Fayos Ikastola irakaskuntza-kooperatiba	2.000
Altafaylla Kultur Fundazioa	1.000
Aurora elkarte	1.000
Club Taurino Tafallés	1.000
Orden del Cuto Divino	850
Aurora elkarte	800
Nafarroako Ondarea Babesteko Plataforma	500
Ama Birjinaren Hamabi Apostoluen Ermandadea	385
Gizarte Asanblada Tafallako Plataforma Soziala	325
Guztira	179.659

Bost dirulaguntzako lagin bat aztertu dugu, guztira 111.200 euro; hau da, dirulaguntza guztien ehuneko 62. Hauek dira:

Onuraduna	Aitortutako betebeharrak
"La Tafallesa" musika banda	55.000
Espainiako Gurutze Gorria	23.200
Peña Sport futbol taldea	20.000
Peña "El Aguazón" elkarte	7.000
Club deportivo Tafa (aretoko futbola)	6.000
Guztira	111.200

Aurreko azterketatik ondorioztatu dugu dirulaguntza horiek araudiaren arabera eman eta kudeatu direla, alderdi esanguratsuei dagokienez. Hala ere, honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- Oro har, hitzarmenek eskatzen dute erakunde onuradunek, dirulaguntzak justifikatzeko, kasuko gastuak behar bezala justifikatuta aurkez ditzaten, baina ez diruz lagundutako jardueri lotutako diru-sarrerak, nahiz eta betebeharrak hori dirulaguntzen ordenantza orokorrean ezarrita egon.

¹Udalaren mendeko entitateei eginiko ekarpenak ez daude sartuta.

- Musika-bandaren, Espainiako Gurutze Gorriaren eta aretoko futboleko Club Deportivo Tafa klubaren dirulaguntzak arautzen dituzten hitzarmenek ezartzen dute ezen diruz laguntzeko modukotzat joko direla, horri buruzko justifikaziorik behar izan gabe, gastu orokorrak (zeharkako kostuak), agiri bidez justifikatutako gastu guztien portzentaje jakin baten adinako zenbatekoan. Portzentaje hori ehuneko 20 edo 30ekoa da, hitzarmenaren arabera, baina kasuko administrazio-espedienteetan ez dago portzentaje horien inolako justifikaziorik.

- Musika-bandari emandako dirulaguntza ez zen argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan. Hala ere, Udalak gure fiskalizazio-lanaren ondorioz argitaratu egin du hori.

Udal taldeentzako diru-zuzkidurak

2022an, udal-taldeentzako diru-zuzkidurek 13.909 euro egin dute, jarraian xehatzen denez:

Udal-taldea	Zinegotzi kopurua	Diru-kopuru finkoa	Diru-kopuru aldakorra	Diru-kopurua guztira
Navarra Suma	5	-	4.091	4.091
Euskal Herria Bildu	5	-	4.091	4.091
PSN-PSOE	3	-	2.455	2.455
Iniciativa por Tafalla	2	-	1.636	1.636
Contigo Tafalla-Tafalla Zurekin	1	-	818	818
Geroa Bai	1	-	818	818
Guztira	17	-	13.909	13.909

Zuzkidura horien zenbatekoa 2019ko uztailaren 5eko Udaltzaren erabakiaren bidez araututa dago. Erabaki hori 2021eko uztailaren 27ko beste erabaki baten bidez aldatua izan zen (2021eko abuztuaren 16ko 191. NAO n argitaratua).

Zuzkidura horiek aztertuta, honako alderdi esanguratsu hauek azpimarra ditzakegu:

- Zuzkiduraren zenbateko osoa udal taldearen kideen kopuruarekiko proportzionala da. Ez dago osagai finkorik, talde guztientzat berdina, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean (aurrerantzean, TAOL) ezarritakoaren aurka.

- Esleituriko zenbatekoak taldeek adierazitako banku-kontuetara transferitzen dira, eta ez da eskatzen taldeak dagokion alderdi politikoaz bestelakoa den IFK eta banku-kontu berekia edukitzea. Egiaztatu dugu gutxienez bi udal-taldek ez dutela IFK berekirik.

- Udalaren araudia zuzkiduren zenbatekoa zehaztera mugatzen da. Ez ditu zehazten taldeen betebeharrak kontabilitatearen eta kontu-ematearen arloan.

- Udalak jakinarazten duenez, Udaltzak ez du inoiz eskatu kontabilitate-aurkezpenik, nahiz eta taldeak behartuta dauden kontabilitatea mantentzera, hala dioenez TAOLek. Era berean, kontu-hartzailetzak ere ez du horri buruzko inolako egiaztapenik egin.

Aintzat hartu behar da diru-esleipen horiek izaera finalista dutela, eta xede dutela taldearen funtzionamendua erraztea haren udal jarduera korporatiboan, eta, funts publikoak diren aldetik, horien erabilera justifikatuta eta fiskalizatuta egon behar dela. Ildo horretan, TAOLek udal-taldeak behartzen ditu berariazko kontabilitatea mantentzera eta hura Udaltzaren eskueran jartzera, hark eskatutakoan.

Egin dugun fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuek gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Hitzarmenetan jasotzea dirulaguntzen onuradun diren entitateen betebeharra dela diruz laguntzeko jarduerari lotutako diru-sarrerara eta gastu guztien berri ematea.*

- *Hala badagokio, kasuko analisiaren bidez justifikatzea jardueraren kostuaren zer zati jotzen den diruz laguntzeko modukotzat justifikazio gehigarriak aurkeztu beharrik gabe, gastu orokorren edo zeharkako kostuen kontzeptuan.*

- *Udal-taldeei eskatzea, zuzkidura horiek jaso ahal izateko, IFK bat eta banku-kontu bereki bat aurkez ditzatela, kasuko alderdi edo koalizio politikoarenez bestelakoak eta independenteak.*
- *Zuzkidura ekonomikoen zenbatekoa arautzea, halako moduz non osagai finko bat ezarriko baita, talde guztientzat berdina, eta beste bat aldakorra, bakoitzaren kide kopuruaren arabera.*

3.4 “NEXT GENERATION EU” FUNTSAK

Europar Batasunak erabaki zuen baliabideak helaraztea estatu kideei “Next Generation EU” funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtu eta ekonomiaren suspertzeari bul-tzada emateko.

2021-2022 aldian, Udalak 16.238 euro jaso zituen funts horietatik, eta 18.169 euro gastatu ditu kasuko proiektuetan, jarraian zehaztu bezala:

Gastuak	ABG, 2021	ABG, 2022	Guztira 2022/12/31n
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	-	18.169	18.169

Diru-sarrerak	AEG, 2021	AEG, 2022	Guztira 2022/12/31n
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	-	16.238	16.238

3.5 CLUB DEPORTIVO TAFALLA SA SOZIETATEAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA

Jarraian, CDTSA sozietatearen 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan sartutako emaitzen kontua laburbiltzen da –urteko kontuen auditoretzarik ez da egin–:

Zorra (hartzekoa)	2022	2021
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	8.038	1.239
5. Bestelako ustiapen-diru-sarrerak ¹	20.000	-
7. Bestelako ustiapen-gastuak	(34.738)	(16.376)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(502.106)	(495.134)
9. Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzen eta beste batzuen egozpena	239.473	234.476
Aparteko gastuak	(200.000)	-
Aparteko diru-sarrerak ¹	200.000	-
A) Ustiapenaren emaitza	(269.332)	(275.795)
C) Zerga aurreko emaitza	(269.332)	(275.795)
D) Ekitaldiko emaitza	(269.332)	(275.795)

⁽¹⁾ Tafallako Udalaren dirulaguntzak.

Negozio-zifraren zenbateko garbian sartutako diru-sarrerak heltzen dira taberna, kafetegi eta jatetxeko zerbitzuaren emakida-kontratutik eta CDTSAk zuzenean kudeatzen duen futbol-zelaia erabiltzeagatik kobrantzetatik.

2022an, CDTSA sozietateak ez dio inolako zenbatekorik fakturatu kirol-instalazioen kudeaketa-
ren emakida-hartzaileari (ezta kanonaren zati finkoa ere, zeina urtean 18.500 eurokoa baita), bi
aldeek adostu gabe zeukatelako 2020ko eta 2021eko ekitaldietan COVID-19aren krisiaren eragina
zela-eta zerbitzu-emakidako kontratua berronkatzeari dagokion zenbatekoa. Emaitzen kontuan
sartutako 200.000 euroko aparteko gastuak dagozkio 2022an emakida-hartzaileari berronkatze

hori dela-eta legokiokeen zenbatekoaren kontura eginiko ordainketa bati². Aparteko diru-sarrerak, berriz, ordainketa horri aurre egite aldera udalak emandako dirulaguntza bati dagozkio. 2022an indarrean zegoen kirol-instalazioak kudeatzeko zerbitzu-emakidako kontratua bi aldeen adostasunez suntsiarazi da, eta beste esleipen bat egin da 2023an.

Ez dugu aztertu zerbitzu-emakidako kontratuen exekuzioa, ezta aipaturiko berronkatzea eta kontratu berriaren esleipena ere, gai horiek ez baitira sartzen txosten honen helburuen eta norainokoaren eremuan.

Gure fiskalizazio-lana munta txikiko kontratuatarako araubide bereziaren bitartezko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertzea izan da, bai eta diru-sarrerak sortzen dituzten kontratuen esleipena ere.

Munta txikiko kontratazioa eta kontratuzko euskarri egokirik gabeko prestazioak

Kontratu-prestazioengatikoko gastuak jasotzen diren emaitza-kontuaren epigrafe bakarra "Bestelako ustiapen-gastuak" izenekoa da. Hona hemen horren xehakapena:

Kontabilitate-kontua (emaitza-kontua)	2022*	2021*
622. Konponketak eta kontserbazioa	16.710	1.459
623. Profesional independenteen zerbitzuak	9.386	8.034
625. Aseguru-primak	3.158	2.998
626. Banku-zerbitzuak eta antzekoak	88	62
628. Hornidurak	4.341	3.638
629. Bestelako zerbitzuak	1.054	185
7. Bestelako ustiapen-gastuak	34.738	16.376

(*) Zenbatekoak BEZik gabe.

Bestalde, balantzearen urtearteko aldeak aztertuz, ekitaldian egindako inbertsio hauek identifikatu ditugu:

Kontabilitate-kontua (balantzea)	2022*
206. Aplikazio informatikoak	14.604
215. Bestelako instalazioak	80.458
Inbertsioak, guztira	95.062

(*) Zenbatekoak BEZik gabe.

Azterketaren xede diren kontratuak hautatzeko, gastu edo inbertsioen kontratisten zerrenda bat eskuratu dugu, kontratu bakoitzaren zenbatekoarekin batera. Hurrengo taulan, ustiapen-gastu eta inbertsio horien xehakapena erakusten da, haiek bereiziz zeren bitartez esleituak izan diren, horren arabera: lizitazio-prozeduraren bidez ala munta txikiko kontratuatarako araubide bereziaren bidez.

² Zenbateko horretatik, 2022an CDTSAk 147.848 euro egotzi zizkion 2020ko berronkatzeari, eta adostu gabe geratu zen 2021. urteari dagokion zenbatekoa. 2023an, administrazio-kontseiluak ezetsi egin du 2021. urteko berronkatzearen eskara, baina, Udalak jakinarazi duenez, bi alderdiek ez dute horri buruzko akordiorik lortu.

	Kontratista-kop.		Gastuaren zenbatekoa*	
	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko kontratueterako araubide berezia	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko kontratueterako araubide berezia
Bestelako ustiapen-gastuak ³	1	19**	7.547	20.032
Inbertsioak	-	12***	-	95.062

(*) Zenbatekoak BEZik gabe.

(**) Horietatik, 18k ekitaldian 3.750 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastua dute.

(2) Horietatik, 10ek ekitaldian 15.000 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastua dute.

Munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez kontratatu diren kontratista guztietatik, honako lagin hau hautatu dugu:

	Kontratista-kop.	Gastua, 2022*
Bestelako ustiapen-gastuak	2	8.979
Inbertsioak	2	47.018

(*) Zenbatekoak BEZik gabe.

Munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez kontratatu diren kontratista guztiak dira, zeinak, ekitaldian sozietateari fakturatu dioten zenbatekoa aintzat hartuta, araubide berezi hori baliatzea ahalbidetzen duen mugaz gorako balio zenbatetsiko kontratuen esleipendun izateko moduan egonen ziratekeen.

Eginiko analisiaren emaitza gisa, txosten honetako "Salbuespendun iritziaren oinarria" atalean adierazitako salbuespenaz gain, nabarmentzen dugu sozietateak ez dituela Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzen munta txikiko araubide bereziaren bidez eginiko esleipenak, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezartzen denaren aurka.

Diru-sarrerak sortzen dituzten kontratuen esleipenak

Sozietatearen urteko kontuen arabera –ez da horien auditoretzarik egin–, Udalaren dirulaguntzetatik ez datozen ekitaldiko diru-sarrerak honakoak dira:

Kontabilitate-kontua (emaitza-kontua)	2022*	2021*
700. Instalazio eta energia kanona	4.011	1.171
701. Taberna-jatetxearen kanona	4.027	68
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	8.038	1.239

(*) Zenbatekoak BEZik gabe.

Urteko kontuen analisitik ez da ondorioztatzen 2022an ibilgetu-besterentzerik egin denik.

Diru-sarrerak sortzen dituen kontratu hau baizik ez da esleitu ekitaldian:

Kontratua	Esleitze-prozedura	Lizitazaille kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa*	Esleipenaren prezioa*	Lizitazioaren eta esleipenaren arteko aldea
Tafallako Kirol Hiria-"Miguel Induráin" belodromoko taberna-kafe-tegi eta jatetxe zerbitzuen emakida	Irekia	1	6.000	6.000	-

(*) Zenbatekoak BEZik gabe.

³ Kanpoan utzi ditugu 7.159 euroko gastuak, kirol-instalazioak kudeatzeko zerbitzuaren emakida-hartzaileari ordainduak emakida-kontratuaren exekuzioaren esparruan, hori ez baita gure fiskalizazioaren xede.

Kontratu honen esleipena berrikusi dugu, eta ondorioztatu dugu aplikatzekoa den araudiaren arabera egin dela alderdi aipagarrienei dagokienez.

Gure fiskalizazioaren ondorioz, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako gomendioez gain, *gomendatzen dugu Nafarroako Kontratazioaren Atarian hiru hilean behin argitaratzea CDTSak munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez egindako esleipenak.*

